

mos creído ver en “Ladrón al acecho”. En resumen, existe en el libro una mano que sabe de técnica narrativa y que hace que los textos representen una cierta riqueza técnica.

Quisiera introducir aquí una reflexión sobre el hecho de que el relato que más se separa de la poética contenida en el libro, “La hechicera” sea el que dé el título al volumen, y creo que ello se debe a una concepción especial de la literatura. En sistemas literarios inestables, como es el caso del que nos ocupa, así como podrían ser los sistemas de literaturas creadas en lenguas minoritarias se tiende a sobre-apreciar el lenguaje arcaico, y puede producirse una “filologización del texto”. Uno de los valores de “La hechicera” es que está escrito en una imitación del español clásico en la carta que Fray Antonio escribe a Pedro Vaguer (de quien no se aclara nada, ni siquiera que es superior del fraile). Que la imitación en sí misma es considerada por la autora un valor literario lo probaría su novela *El otro y el uno* (2000), publicada en el mismo lugar y editorial que el libro que comentamos, basada en la relación entre Cervantes y Lope de Vega, escrita bajo el dictado de “reconstruir su lenguaje” como se anota en la nota de contraportada.

Pero cuando la autora en vez de fijarse en el pasado, remite su mirada crítica a la situación de la sociedad los cuentos reunidos en *La hechicera y otros relatos*, impresionan.

Jon Kortazar Uriarte



PARDO, Juan; EGAÑA, Juntxo
Historia fotográfica de la última Guerra Carlista (1872-76)
Donostia : Txertoa, 2007. – 161 p. : il. ; 25 cm. – ISBN: 978-84-7148-416-1.

Bigarren Karlistada izan zen Euskal Herrian argazkigintza ezagutu zuen lehen gerratea. Ordurako Krimeako gerran edota Estatu Batuetako Gerra zibilean ibiliak ziren argazkilaria, baina gurean hau izan zen lehena.

Hori bai, garai haietan oraindik argazkia egitearen prozesua oso motela zen eta erretratuak egiteko erabiltzen zen gehienbat. Akzioak ezin ziren tramankulu haiekin isladatu eta grabatuak egiteko laguntzaile modura erabiltzen ziren. Garaiko aldizkari ilustratuek maiz adierazten zuten bere grabatu ikusgarri haiek argazkietan oinarrituak

zirena, baina urteak pasako ziren oraindik argazkiak zuzenean aldizkaritan argitaratzen hasi arte.

Beraz euskal argazkigintzaren aintzindarien lanekin egingo dugu topo liburu interresgarri honen orrialdeetan. Gainera Katalunia, Aragoe eta beste zenbait lurraldeetako argazkiak ere aurki ditzakegu, nahiz eta gehiengoa bertakoak osatzen duten.

Juan Pardo eta Juantxo Egañaren lan honek bi ekarpen nagusi egiten dizkio gure liburugintzari. Bata Bigarren Karlistadaren dibulgazioari dagokio. Bestea XIX. mendeko argazkigintzari.

Egileak ezagunak ditugu, bakoitzak bere alorrean aurrez egindako ekarpenengatik. Pardok, besteak beste, karlistadak aspaldidanik aztertu ditu. Gurekin 1990.ean hasi zituen harremanak, Zumalakarregi Museoaren *Azterketa Historikoak* Ilean "Ejército Carlista 1839" artikulua idatzi zuenean. Geroztik maiz izan ditugu harremanak, bereziki ikerketetan egiten dituen aurkikuntzei buruzko informazioa, esku zabal, eskaintzen digulako.

Egañak berriz argazkigintzaren dibulgazioa lantzen urteak daramatza aldizkari ugarrin. Gogoan dugu, besteak beste, Kutxako aretoetan antolatu zuen erakusketa: "Argazkilari eta Bidaariak: Euskal Herria. 1854-1925".

Bigarren Karlistadaren alde historikoari dagokionez ikusten da testuak oso neurtuak daudela liburuaren helburu nagusiari, argazkiak erakusteari alegia, enbarazu ez egitearren. Baina eskertzekoa da testuek jasotzen duten sintesia, gaiari lehenengo aldiz heltzen diotenei oso interesgarria dakiokelako.

Aldiz arlo grafikoari dagokionez, zalantzarik gabe, egundaino egin den lan osatue-na dugu. Biltzen dituen 250 argazki inguru horietatik asko ezagun egingo zaizkio adituari, baina sekula argitaratu gabeko argazki anitz aurki daitezke. Izan ere egileek bilduma hau osatzeko egindako lan eskergea nabarmentzekoa da. Ia 40 artxibo publiko miatu dituzte lan hau burutzeko, baina, are interesgarriago dena, beste hainbeste artxibo pribatu ere bai. Eta jakina zaigu mundu honetan gabiltzanoi, zein korapilatsua izaten den honelako artxiboetan sartzea eta emaitzak zabaltzeko baimena lortzea.

Beraz egundaino sekula argitaratu den Karlistadako argazki bilduma aberatsenaren aurrean gaude. Gainera Karlistadaren historia lantzen dugunontzat, argazkietan agertzen diren pertsonen identifikazio lan izugarria bereziki azpimarragarria da. Ahalegin honen adierazle gerra hasi aurretik karlisten buruzagiek Veveyn egindako bileraren argazkian 80tik gora pertsonen izenak azaltzea dugu. Kasu honetan, argazkian agertzen diren pertsona kopuruaren eraginez, eta zehatz izateagatik, esan beharra dago ez dela erraza karlista bakoitzari dagokion izena jarraitzea. Baina salbuespena da. Liburu honek Bigarren Karlistadako protagonista nagusiei "aurpegia" jartzen laguntzen digu eta hemendik aurrera kontsultarako ezinbesteko tresna bihurtuko zaigu.

Liburuaren okerrak ere aipatu behar ditugunez, nabarmenetakoa pertsona izenen aurkibiderik ez izatean datza. Egun eskura ditugun baliabideekin hain zaila ez den lana eta kontsultak erraztuko lituzkeen tresna izango litzatekeena.

Arestian genion bi ekarpen nagusi eskaintzen zituela liburuak. Bigarrena argazkigintzaren historiari egiten diona da. Gurean gutxi jorratutako ekimena, salbuespenak salbuespen. Izan ere, arestian José de Lejarretari Durangoko Arte eta Historia Museoak eskeinitako erakusketa eta katalogoa aipatu beharra dago hemen: URIARTE

ASTARLOA, José M^a. eta SIERRA-SESUMAGA, Victor. *José de Lejarreta: Argazkilaria 2. Gerra Karlistan*. Durangoko Arte eta Historia Museoa, 2007. Aipagarria ere bada Bilboko Euskal Arkeologia, Etnologia eta Kondaira Museoa 2000.ean argitaratutako *Bilbao 1860-1895. Pedro Telesforo de Errazquin*.

Baina, esku artean dugun hau beste asmo batekin egina dugu, alegia, difusio bokazio batekin burutua dugu. Eskertzekoa da egileek argazkilaria bakoitza ere identifikatzen egindako saiakera. Honela, ez gaude soilik XIX. mendeko argazki bilduma zabal baten aurrean, gainera argazki horien egileei buruzko informazio baliotsua ere eskaintzen digu liburu honek.

Nabarmentzekoa da Santa Cruz apaizaren argazki famatuaren egilearen artxiboa ere ezagutu eta landu dutela. Alegia Ladislas Konarzewski poloniarrarena, bere autorretratua ere eskaintzen digutelarik.

Honela XIX. mendeko argazkigintza aztertzeko tresna baliagarria ere bada liburu hau, bereziki Euskal Herrian 1870.eko hamarkadan lan egin zuten argazkilaria ezagutzeko.

Liburuaren estrukturari dagokionez esan beharra dago oso argia dela bai irakurketa historikoa egiteko bai argazkigintzari lotutakoa burutzeko. 14 ataletan banatua dago gehienak lurralde bakoitzari lotuak, Katalunia, Aragoie eta Gaztela barne.

Gerraren hasiera, Erret-familia eta Estatu Karlista aztertzen ditu lehenengo. Lurralde bakoitzean gertatutakoak ondoren. Bitxikeri zenbait gero, halanola, korreoa, komunikazio zerbitzuak eta itsasoan gertatutako gatazkak. Azkenik gerraren amaiera eta herbestea jorratuz.

Azpimarragarria da, bestalde, argazkien erreprodukzioen kalitatea. Jakinik askotan jatorrizko argazkiak nahiko kalitate edota kontserbazio txarrekoak direna, ikusgarria da liburu honetan lortutako emaitza.

Bestalde izenburuak berak adierazten digu argitalpena Espainiari begira egina dena. Izan ere gurean onartua dago 1872-76 urteetan jazotakoa Bigarren Karlistada deitzea. Espainian, aitzitik, Bigarrena 1846-49.ean Katalunian bereziki eman zen altxamendu karlistari deitzen diote, 70.eko hamarkadan eman zenari Hirugarren Karlistada deitzen dioten bitartean. "Azkena" hitza erabiliz nahasketa posible hori ekiditea lortzen dute.

Laburbilduz esan daiteke bi ikertzaile adituen lan hau ikerketa urte askoren emaitza dugula, landutako artxiboei erakusten dutenez, eta Bigarren Karlistadaren alde grafikoa oso modu garbian adieraztea lortu dutela argitalpen interesgarri honetan.

Mikel Alberdi Sagardia